

## 04/05 IRIZPENA

Lontxo Oihartzabal jn.  
Juan Carlos Arraibi jn.  
Gaizka Gabantxo jn.  
Pilar Ramírez and.  
José Ramón Kortabitarte jn.  
Gonzalo Larruzea jn.  
Pedro Otxoa jn.  
Raimundo Rubio jn.  
Manu Udaondo jn.

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2004ko ekainaren 3ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: Diseinu Grafiko eta Barne Diseinuko lanbide-arloei dagozkien Maila Ertaineko eta Goi Mailako heziketa-zikloetako curriculumak ezartzen dituzten dekretu proiektuei buruz.

Eva Blanco and  
Idazkari teknikoa.

## SARRERA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Euskadiko Eskola Kontseiluari aurkeztu dizkio dekretu proiektu hauek, ahalik eta azkarren eman dezan aginduzko txostena:

- ✓ DEKRETUA, **Diseinu Grafikoko lanbide-arlor**a biltzen den eta **Autoedizio alorrekoa den Arte Plastikoetako eta Diseinuko teknikari tituluari** dagokion **Maila Ertaineko Heziketa-zikloaren** curriculumuma ezartzen duena Euskal Autonomia Erkidegoaren eremurako.
- ✓ DEKRETUA, **Diseinu Grafikoko lanbide-arlor**a biltzen den eta **Publizitate Grafikoaren alorrekoa den Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi mailako teknikari tituluari** dagokion **Goi Mailako Heziketa-zikloaren** curriculumuma ezartzen duena Euskal Autonomia Erkidegoaren eremurako.
- ✓ DEKRETUA, **Diseinu Grafikoko lanbide-arlor**a biltzen den eta **Ilustrazioaren alorrekoa den Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi mailako teknikari tituluari** dagokion **Goi Mailako Heziketa-zikloaren** curriculumuma ezartzen duena Euskal Autonomia Erkidegoaren eremurako.
- ✓ DEKRETUA, **Barne Diseinuko lanbide-arlor**a biltzen den eta **Dekorazio Lanen Proiektu eta Zuzendaritzaren alorrekoa den Arte Plastikoetako eta Diseinuko Goi Mailako teknikari tituluari** dagokion **Goi Mailako Heziketa-zikloaren** curriculumuma ezartzen duena Euskal Autonomia Erkidegoaren eremurako.

## **AURREKARIAK:**

Hezkuntzaren Kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2202 Lege Organikoak I. Tituluan jaso ditu Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakaskuntzak, araubide bereziko irakaskuntzetara biltzen diren Irakaskuntza Artistikoen barruan.

Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren Bigarren Tituluak ezarri du Arte Plastikoetan eta Diseinuan sartzen direla arte aplikatuekin, lanbide artistikoekin, diseinuarekin (modalitate eta maila guztietan) eta kultura-ondasunen kontserbazio eta berriztapenarekin zerikusia daukaten ikasketak guztiak. Bestalde, legeak dioenez, irakaskuntza hauek moduluen bidezko hezkuntza-zikloetan antolatuko dira.

Maiatzaren 7ko 676/1993 Errege Dekretuak (EBO, 93/05/22) Lanbide Heziketako tituluei eta haiei dagozkien gutxieneko ikasketei buruzko jarraibide orokorrak ezartzen ditu eta bosgarren xedapen gehigarrian xedatu du Arte Plastikoak eta Diseinua heziketa-zikloen bidez antolatuko direla.

Irailaren 9ko 1843/1994 Errege Dekretuak Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi mailako teknikarien tituluak ezarri ditu. Jarraian adierazitako errege dekretuek titulu hauei dagozkien gutxieneko ikasketak ezarri dituzte:

- ✓ Irailaren 1eko 1456/1995 Errege Dekretuak Diseinu Grafikoko lanbide-arloran biltzen diren eta **Publizitate Grafikoaren**, Ilustrazioaren eta Argazkigintza Artistikoaren alorrekoak diren **Arte Plastikoetako eta Diseinuko** goi mailako teknikariaren tituluak eta haiei dagozkien gutxieneko ikasketak ezarri ditu.
- ✓ Irailaren 1eko 1457/1995 Errege Dekretuak Diseinu Grafikoko lanbide-arloran biltzen diren eta **Autoedizio alorrekoak diren Arte Plastikoetako eta Diseinuko teknikari tituluak** eta haiei dagozkien gutxieneko ikasketak ezarri ditu.
- ✓ Irailaren 1eko 1464/1995 Errege Dekretuak Barne Diseinuko lanbide-arloran biltzen diren eta Altzariz janztearen, Arkitektura Iragankorraren, Erakusleihopainketaren, Lorategiko Gauzen eta **Dekorazio Lanen Proiektu eta Zuzendari-tzaren** alorrekoak diren **Arte Plastikoetako eta Diseinuko Goi Mailako teknikari tituluak eta** haiei dagozkien gutxieneko ikasketak ezarri ditu.

Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Lege Organikoaren 8. artikulua dioenez, curriculumean hezkuntza-sistemako maila, etapa, ziklo, gradu eta modalitate guztietako helburu, eduki, metodo pedagogiko eta ebaluazio irizpide oro sartzen da.

Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Lege Organikoaren 8. artikuluko 3. paragrafoarekin bat etorritik, Hezkuntza Administrazioei dagokie hezkuntza-sistemako maila, etapa, ziklo, gradu eta modalitateetako curriculumak ezartzea eta curriculum horrek irakaskuntza komunak jasoko ditu.

## **BALORAZIO ETA PROPOSAMENAK**

Dekretu hauen helburu nagusia da Diseinu Grafiko eta Barne Diseinuko lanbide-arloei dagozkien Maila Ertaineko eta Goi Mailako heziketa-zikloetako curriculumak ezartzea.

Dekretuotan irakaskuntza hauen antolamenduari, heziketa praktikoko faseari, ebaluazioari eta sartzeko moduari buruzko oinarrizko alderdiak jaso dira. Bestalde, eranskinetan Gutxieneko Irakaskuntzen Errege Dekretuek ezarritako gutxieneko irakaskuntzen curriculumak eta gure erkidegoari dagokion gainerako curriculumak garatzen da.

Administrazio bakoitzaren eskumenekoak diren beste alderdi batzuk ere garatzen dira, hala nola, Heziketa Praktikoko Fasea (II. Eranskinean arautzen dena) eta Azken Proiektua egin eta ebaluatzeko prozedura. Nolanahi ere, heziketa-ziklo hauetan sartzeko behar den froga bereziaren arauketa atzeratu egin da; gure ustez alderdi hau oso garrantzitsua da eta hainbat azkarren arautu beharko litzateke.

Hori guztia aintzat harturik, eta oinarrizko araua errespetatzen dela, proposaturiko garapena eskaini nahi den heziketari egokitzen zaiola eta garapen hori behar bezala formulaturik dagoela kontuan izanik, egoki deritzegu gorago azaldutako dekretu proiektu horiei.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratu da.

Bilbon, 2004ko ekainaren 8an

IDAZKARI TEKNIKOA,

Iz.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-onetsia

LEHENDAKARIA,

Iz.: Lontxo Oihartzabal

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILBURUA.